

**UA-UAU** onomatopeia. ( haur hizkera.) Txakurra. *Ua-uauk zer eitten dau? (SB Eibetno)*. Sin. **txitxi**.

**ÚAR, uarra** (c). izena. (Angiozar, Ubera) **ÚGAR**. Herdoila. • Roña, herrumbre. *Ubera ta Anguzarren uarra esate jotsek erdoixai*. Sin. **órdai**.

**ÚARTU** (a). da-du aditza. (Angiozar, Ubera) **UGÁRTU**. Herdoildu. • Roñar(se). *Uartutako sarda puntia sartu jako ankatik*. Sin. **ordáittu**.

**UBÉLDU1. ubeldu** (d). aditza. Amoratarse. *Betondua ubelduta zeukan./ Laster ubelduko jatzu ipurdiko golpia. Beltzittu* da erabiliagoa. **2. ubeldu, ubeldúa** (d). izena. Moratón, cardenal. *Gorputz guztia ubelduz beteta urten zeban komisarixatik. Beltzittu* edo **beltzune** erabiliagoak dira. Ik. **úluna**.

**UBERA** (a). toponimoa. Bergara eta Elgeta artean dagoen auzoa.

**Ubera trebera, Elgeta maleta, Anguzar trapuzar, Bergan tronpia ta Antzuelan koipia** (d). esaera. Klem. Garai batean oso ezaguna zen esaera.

**Ubera-lau, ubera-laua** (c). toponimoa. Uberako kalea eta ingurua. *Ubera-lauan amar bat etxe egongo die*.

**ÚBETA, úbetia** (d). izena. Errotako andapararen "konportaren" atea. • La compuerta del depósito del molino. *Ubetia. Errotan bertan graduau eitten jaue geixao emun ero gutxiao emun ero, ero arrixa gelditzeko. Ubetia izengo zan ba*. Don. Etim.: ur+ate, beharbada. Ik. **kónporta**.

**ÚDA, udía** (a). izena. Verano.

**UDABÁRRI, udabarríxa** (a). izena. Primavera.

**UDAGUEN, udaguena** izena. (Eibar) "Udazkena. Baserrietan kalean baino gehiago erabiltzen da berba hau." (AAG <i>Eibes).</i>

**UDALORA, udaloria** izena. . (Eibar) primula vulgaris. Primula, vellorita.

**UDÁZKEN, udázkena** (a). izena. **UDATZEN**. Otoño. Oso adinekoek **UDATZEN** edo Uda-atzen ere bai. *Uda-atzenian garo-karruak eta alako batzuk bai, besteik etzeuan, garoz kargauta karruak, gurdixak*. Sot. Oso adinekoek **UDATZEN** edo **UDA-ATZEN** ere bai. **UDAGUEN** ere entzun daiteke Eibarren eta eskualdeko beste zenbait lekutan, adinekoen ahotan

**ÚEL UAL, UBEL.1. uel, uéla** (c). izena. Uhala. • Correa de cuero. *Uztarrixa lotzeko uela apurtzen danian korapillua eitte jako./ Guk miña esaten dotsau, olako... onetxen moduko zer bat, uelakin barruan lotuta egoten da, taka, taka, taka, arek joten dau*. Luis./ *Manofrak, eztaikit zuk dakizun zelakuak dien, burdiñia ei dauke, koskorak ei dauzke ta, uela emendik ola, ta au sartu eskuen da, burdiña-koskuak ei dia, manofrak orrek*. Ben. Uztarriarenari **EDE** ere bai.**2. uel, uéla** (d). izena. Anezkari bultza egiteko ehundegiak alde bakoitzean besoei lotuta dituen sokak. Ehuleak soka horiei tira eginez anezka mugitzen du alde batetik bestera. • Cuerda del telar que al tirar de ella el tejedor, la lanzadera recibe los golpes que la hacen circular de un lado a otro de la urdimbre colocando la trama. *Eta uala, emendik berakua uala, ta beso au zan ual baten bidez anezkiai bultza eitten*

otzana. Josu. **3. uel, uéla** (d). izena. Llanta de carro. *Uztaua dok ori be; meia danian uela. Burdixai, burdi zorrotzai eitte jakok orrekin, ia plantxa dezentia. Da meia baldin bada uela.* Don. Ik. **burtúel, llánta**. **4. uel, uéla** (d). izena. Burdinazko uztaua. • Aro de metal. *Ordenia emun otxanian borreruak, tornuan uela ipiñi lepotik, tornuai emun buelta, zela itto-ben.* Hil. (AA BergEus)**5. uel, uéla** (d). izena. Atearen ardatzari hormaren kontra eusten dion altzairuzko xafla.

**UEZ** Ik. **ugez**.

**UEZABA** Ik. **ugézaba**.

**ÚFAL, ufála** (c). izena. UJAL (EIB.). Uholdea, uraundia. • Inundaciones. *Agostuko ufalak kalte aundixak ein zittuan./ Ufala guk etxuau esaten, guk uraundixa esaten dou, ufala Plaentxian da.* Don. Sin. urixola (Aram.). Sin. **uraundí**.

**UGÁLDU** (b). da aditza. Ugaritu. • Aumentar en número. *Aspaldixan tabernak ugaldtu ta taillerak urrittu.* Sin. **ugarítu**. Ant. **gutxítu, urrítu**.

**UGAR** Ik. **úar**.

**UGARI1. ugari, ugeri** (b). zenbatzailea. Abundante. *Jente ugari dabill kalia./ Orrek ipuiña ugari dauka./ Ugari dago aurten perretxikua./ Emakumia, umiak ugeri eukitzeko eta lan ugeri eitteko.* Mertz. (AA BergEus) UGERI ere bai Osintxuko adinekoek. Ant. **urri**. **2. ugari, ugaríxa** (b).

adjektiboa. Zer asko duena. Atributo gisa erabilia ia beti. • Abundante, de muchas unidades. *Bedar txarra ugaríxa izaten da./ Kasta ugaríxa da ijittuena./ Ondo ugaríxa die etxe aurreko madaríxaBedar txarra ugaríxa izaten da./ Kasta ugaríxa da ijittuena./ Ondo ugaríxa die etxe aurreko madaríxa.* Horrelako testuinguruetan bakarrik. Ez da esaten "ugaríxa izan zien iez huelga-egunak" eta horrelakorik. Honelakoetan ugari. Ant. **urri**.

**UGARÍTTU** (b). da aditza. Aumentar en número. Sin. **ugáldu**. Ant. **gutxítu, urrítu**.

**UGARÍXO, ugaríxúa** (a). izena. UGARATXO (EIB.), UGATXO (ARAM.). Igela. • Rana. *Probaittuzu ugaríxo-ankak? Ba oso gozuak ei die.* Ik. **txántxiku**.

**UGARTU** Ik. **uártu**.

**UGEZ** UEZ. **Uez** entzun ohi da gehienetan osagai hau duten ondorengo berbetan.

**UGÉZABA, ugézaba** (b). izena. Ugazaba. • Patrono, amo. *Uezabakin burrukan eiñ i dau./ Uezaba geixao ibiltzen da errenterua daonian, da errixan ero daukanian bere nausixa. Orduan esaten da &ldquo;uezaba da alako&rdquo;.* Don. Esan U Ik. **jábe, nausi**.

**UGÉZ-ÁITTA** (d). izena. Aita-ordekoa. • Padrastro. *Uez-aitta ta uez-ama, ba padrastrua ta madrastia. Uez-alabia ba ospiziokua danian. Uez-semia ba berdin. Uez-... hospizioko seme-alabak direnian bakarrik ez; baita norbere aita edo amaren alargundu ondorengo ezkonkidea (uez-aitta, uez-ama), eta jakina, haren seme-alaba ordeak (uez-anai-arrebak). Adinekoek bakarrik ezagutzen dute hitza.* Ik. **aitta-órde**.

**UGÉZ-ÁIZTA, ugéz-áiztia** (d). izena. Ahizpa-ordea.

**UGÉZ-ÁLABA**, **ugéz-álabia** (d). izena. Hija adoptiva. Sin. **alába ordéko**. Ik. **ugéz-áitta**.

**UGÉZ-ÁMA**, **ugéz-áma** (d). izena. Madrastra. Sin. **ama-órde**. Ik. **ugéz-áitta**.

**UGÉZ-ÁNAI**, **ugéz-ánaia** (d). izena. Anai-ordea. • Hermano adoptivo.

**UGÉZ-ÁRREBA**, **ugéz-árrebia** (d). izena. Arreba-ordea. • Hermana adoptiva.

**UGÉZ-SÉME**, **ugéz-sémia** (d). izena. Hijo adoptivo.

**UGÉZ-UME**, **ugéz-umia** (d). izena. Hijo/a adoptivo/a.

**ÚJENTU**, **újentua** (c). izena. UNJENTU. Ukendua. • Ungüento, pomada. *Etorri zaitte gurera, ujentu on bat daukat erriandako./ Unjentu au emuteko esan dost medikuak. Gaur **pomada** entzuten da, baina gure mutikotan ez.*

**UJOLDE**, (a). toponimoa. (Elosu) UJELDE . Elosuko auzounea.

**ÚJU EIÑ** (d). du aditza. Oihu egin. *Gabaz uju eitten daben orri esaten jotsau gau-txorixa. Don. Gau-txorien oihuez entzun dugu bakarrik.*

**UKÁ-PERTE** (d). UKÁ-PUERTE. Ijitoek zuten ohizko defentsa dena ukatzea zen. Antzinako ijito-kontu ezagunean aitak preso daramaten semeari <b>Uka-perte</b> (uka fuerte) duela izena oihukatzen dio; dena uka zezala esateko modu zuhurra. • En un cuento popular de gitanos el padre grita a su hijo detenido que diga llamarse "Uka-perte", sugeriendole así que lo niegue todo. *Uka-perte, uka-perte dek ire izena! Uka-perte zala bere izena aittak esate jotsan semiai. Ukatzeko esan nai jotsan, baiña ezin esan ori direktamente ta. Ingo juan lapurretan bat ero zeoze, ta guardazibillak eruango juen da. Ukaperte dek ire izena, uka-perte mutiill! Klem. Tor. Etxebarriaren lexikoian ere badator honen aipamena: Uka, Jose, uka, eta egon zu orretan! Eta: Uko, Jose, uko, kastia bazara! (Etxba Eib).*

**UKAT EGIÑ** (c). aditza. (Eibar) Neka-neka egin, lehertu. • Rendirse a la fatiga o a otro exceso. *Kurutze astunan azpitan iru bider ukat ein ei eban gure Jaunak, urkamendiko tokira eldu aurretik. (Etxba Eib)./ Ukat eindda aillegau nitzuan Aixkorriko puntara. Sin. **ukatu**.*

**UKÁTU1. ukátu** (b). du aditza. Negar. *Eztostazu ukatuko nerekin asarre zarela./ Ezin dda ukatu portau dana./ Juiziuan dana ukatu zeban. Ik. **negáu**. 2. **ukatu** (b). da aditza. Negarse a algo. *Agintzen bazotsen, bera etzala ukatuko lan ori eittera. Sin. **negáu**. 3. **ukatu** (d). da-du aditza. Nekearen nekez etsi. • Rendir(se) de cansancio. *Basarrixan eoten zan orduan lana; ura danian urriñ, da ganau-zaintzia, ittulia, gaztaiña zuritzen berriz, e, ukatzeko laiñ. Aniz./ Zalgia parrau eitten da, katiu eitten da dana. Garixa lotu eitten dau, garixa ukatu eitten dau atzenian. Don. UKATUTA, batik bat. Ukatuta geldittu nitzan lastofarduak jasotzen./ Gure Jose Ramon ukatuta etorri da basotik. Sin. **ukat egiñ**. Ik. **mangáuta**, **pót eiñ**, **étenda**.***

**UKOLONDO UKONDO**. Ik. **ekúlondo**.

**UKUTU** Ik. **ikútu**.

## 1. ULE lk. ílle.

2. **ÚLE, ulía** (c). izena. Plastiko antzeko mahai-estalgarrria. • Hule. *Ulia erre da lapikuakin.*

**ULÍXA** (d). izenordaina. ULEXA (EIB.). Uria, halako. • Tal, fulano. *Ulixak esan zebala ta olakuak. Esan zotan neri eztakitt zeñ ulixak esan zebala baiña... Klem./ Ulixa etxetan, porrejenplo Izarrekuak, Bitxurtun baeguan ilddakua, Bitxurtun difuntua dagola ero difuntia dagola. Aniz./ Ulixak ulixai entzundakuak eta olako kontu beruak eukitzeittu. Klem./ Elgoibarko auspu-konpontzaille bati bialdu ei zetsan errekaua, juateko Eibarren ulexa lekutara, auspu bat euala konpontzeko ta. (SM Zirik)/ Esan zeban ulixa lekutan ulixa mutillakin ikusi zebala. Ondoko hitza mugagabeen. Gaur ia galdua. ALAKO erabiltzen da ordez: Alako lekutan alako mutillakin ikusi zebala. **ulíxa ta bendíxa** (d). izenordaina. Uria eta berendia. Fulano y mengano. *Ulixak eta bendixak kulpa guztiak, berak bapez. Gaur egun fulano ta bengano gehiago. Sin. aláko eta aláko.**

## ULTZA, -E lk. íltza.

**ULU1. ulu, ulue** (b). (Leintz) Oihua. *Ulu baten jabitzen. uluka, ulúeka, ulúez* adberbioa. Oihuka. Bergaran txakurraren alaruez ia bakarrik. *Gure txakurak uluka emon dau gau guztia./ Txakurra ulueka dao, uluez dao. Don. Pertsonak **diarka** edo **txilíxoka** ibiltzen dira Bergaran; Leintz aldean, ostera, pertsonak ere **uluka**.* 2. **ulu, ulua** izena. "Aullido de perros y lobos; también el canto del buho." (SB <i>Eibetno).</i>

**ÚLUNA1. úluna, úlunia** (d). izena. Ilea joandako lekua; pertsonaren buruan, ardietan, etab. • Calva, espacio en el que se ha caído el pelo. *Ulunak esan eitte jako. Don. Behin bakarrik entzun dut. 2.*

**úluna, úlunia** (d). izena. Ubelunea, beltzunea. Azala kolpe bategatik beltz-beltz jartzen denean zer den galdetuta: *Beltzunia ero ulunia. Don. Etim.: ubel+una, ziurrenik. Sin. béltzuna, -e, ubeldu.*

**UMÁU, umáua** (d). adjektiboa. Gari, izara edo belarrondo artean kontserbatutako frutaz esan ohi da. • Se dice de las frutas conservadas entre trigo, sábanas, heno, etc. *Bai, umauak esate jakuek. Len etxauan kamaraik eta zerik eta... &mdash;Zela gordetzen ziren? &mdash;Gari artian be bai; armaixoko izara artian ero, erroa artian ero, gordetze zittuan, leku batzutan beintzet. Klem./ Sagar umauak jan giñuzen Karnabaletan.*

**ÚME, umía** (a). izena. Haurra; aberekumea ere bai. • Niño, -a; también cría de animal. *Zenbat ume daukazu?/ Konejuak umiak eittu. Hitz konposatuetan -kuma edo -kume: **txakurkuma, -e, konejukuma, -e, fraillekuma, -e, putakuma, -e, etab.** lk. kúma. **Lelengua Liliri, bigarrena***

**Margari eta irugarrena sobrari** esaera. (Antzuola) "Lehenengo umea poz handiz hartzen da, bigarrena ez hainbeste, eta hirugarrena..." (Lar Antz). **Umiak asi eta nekiak bizi** esaera. "Umeek lan handiak eta ardura handiak ematen dituzte." (Lar <i>Antz</i>). **Umiak ume, Inglaterran be ume** esaera. (Antzuola) (Lar Antz). **umé éesperuan egon** (c). esapidea. Haurdun egon. lk. **éesperuan égon. ume gorri** 1. **ume gorri, ume gorrixa** izena. Ume jaiio berria.

2. **ume gorri, ume gorrixa** izena. (Eibar) "Polluelo (txoriarena) recién eclosionado." (SB Eibetno).

**ume zorri, ume zorrixa** izena. (Eibar) Ume lotsabakoa.

*Gaur egunian ume zorri guztiak zigarrua auan dabela ibiltzen die kalean. (AAG Eibes).umía azi* (b).

aditza. Criar un niño. *Berak bakarrik azi zittuan bost umiak. umía eiñ* Abereak umea izan. *Katuak umiak eittu. umía éitteko egon* (c). esapidea. Haurdun edo ernari egon. Animaliez zein pertsonaz. *Biae gaztia umia eitteko dago. Sin. ernari egon. (animaliak), ume esperuan egon (pertsonak). lk.*

**ernári. umia izan** (a). aditza. Erditu, familia izan. *Maikak umia izan &mdash;(edo euki)&mdash; dau*

joan dan astian. Sin. euki. Sin. **famílixia izan. úmiak eiñ** (c). esapidea. Hacer(se) pedazos. *Neskatilliai platera eskutan artzen lagatzen bajatzu laster eingoittu umiak.*

**UMEÁLDI, umealdíxa** (b). izena. Animaliak umeak egiten ditueneko aldi bakoitza. • Camada. *Konejuak urtian bi umealdi ero iru izateittu.* Ardien kasuan, baita artaldearen bildots-egite bolada bakoitza. *Urte batekuak baiña umealdi diferentetakuak die onek billotxok.*

**UMEASTÚNDU** (d). da aditza. Haurdunaldia oso aurrera euki. • Tener la preñez muy adelantada, el vientre muy hinchado. *Apala&rdquo; umeastunduta dago ta ezingo dou uztartu.* Behiez entzun dugu bakarrik. Ik. **astúndu**.

**UME-DENPORA, ume-denporia** (c). izena. Haurtzaroa. Infancia. *Ume-denpora negargarrixa pasautakua da ori.*

**UMÉGINTZA, umégintzia** (c). izena. Parto, tanto de personas como de animales. *Umegintzia dago etxe ortan; partua dagola./ Umegintzan il zan aura andria be. Klem.* Behiena **txalgintza.umegiñan** (c). adberbioa. Pariendo. *Umegiñan dago ardixa.*

**UMÉ-ÍZARA, umé-ízarak** (c). izena. UMEZARA (EIB.). Lehengo oihalezko painalak. • Pañales antiguos. *Egun guztia ume-izarak garbitzen./ Izarak eta mantatxuak eukitze jittuen. Klem.* Pluralean, batik bat.

**UMEKERÍXA, umekerixía** (a). izena. Chiquillada. *Umekerixa bateaittik asarretu zien.*

**ÚMEL, uméla** (b). adjektiboa. Húmedo, medio mojado. *Intza ein ddau ta umela dago bedarrondua./ Oinddio umela dago atzo esegittako erropia.* Ik. **ézko, ezkúra, éze**.

**UMÉLDU** (b). da-du aditza. Umel bihurtu. *Etxe aretan izarak pe umelduta egoten die, ain dda paraje zokua eze./ Umeldu ero lizundu (belarra). Umeldu ezkerro ba urrengo lizuna. Umelak lizuna dakar ondorik. &ldquo;Bedar umela ekarri dou. Au lizundukok&rdquo;. Don.*

**UMÉLOI, uméloixa** (c). izena. Placenta. *Txala eiñ eta umeloirik ezpadau eitten betenaixuai abixatzen jako.* Azen.: úmeloire bai. Sin. **káren**.

**UMÉMIÑ, umemiñak** (d). izena. (Oñati) Haurgintzako minak. • *Umemiñetan geratu dok. Umemiñakin dao: con dolores de parto.* (Izag *Oñ*). *"Umemiñetan geratu dok. Umemiñakin dao: con dolores de parto." (Izag Oñ).*

**UMÉSKE** (b). adberbioa. Susara. • En celo el ganado vacuno. *Beixa umeske daukagu.* Sin. ixko eske. **umeske jarri** (b). Umesketu. Encelarse la vaca. *Laster jarriko da umeske pinttia.* Sin. **umeskétu**. Ik. **arkéra, ígel egon, xípu, altan egon**.

**UMESKÉTU** (c). da aditza. Susara jarri behia. • Encelarse el ganado vacuno. *Urrengo umesketzen danian txarolesa bota bia jako.* Sin. **umeske jarri**.

**UMETERÍXA1. umeterixa, umeterixía** (c). izena. Ume mordoia. • Montón de niños. *Bostak aldian sekulako umeterixia izaten da ikastola aurrian.* **2. umeterixa, umeterixía** (d). izena. Umeak, haurrak, orokorrean. *Umeterixia ziero lelotuta dago telebisiñuakin.*

**UMÉTOKI, umétokixa** (b). izena. Matriz. *Beixa kendu ein bia dabe, umetokixan zeoze dauka*

*itxuria ta./ Matriza betenaixuak-eta esaten dau, sartu eskua ta, ibiltzen da ta, &ldquo;oker dauka, matriza dauka biurtuta&rdquo;. Baiña guk umetokixa esaten dou geuk. Don. Abereenari, batik bat. Pertsonarenari **matriza** deitzen zaio normalean. Ik. **natúra, txuringa, umetokixa bota** aditza. "Salirse el útero tras el parto, generalmente en las vacas." (SB <i>Eibetno).</i>*

**UMÉTU** (b). da-du aditza. Ume bihurtu. *Ze, zuk pe ziero umetu biozu, ala?*

**UMÉZAIÑ1. umezaiñ, umezáiña** (c). izena. Umeak zaintzen dituenak. • Cuidador, -a de niños, chacha. *Umezaiña joan jako eta beste baten billa dabill. 2. umézaiñ (b). adberbioa. Umeak zaintzen. *Biar umezaiñ tokatze jat./ Aspertuta nago beti umezaiñ.**

**UMÉZURTZ, umezúrtza** (c). izena. Huerfano, -a. *Oso gazteik geldittu zien umezurtz.*

**UMÍA EIÑ** Abereak umea izan. *Katuak umiak eittu.*

**UMÍLDDU** (c). da aditza. Apaldu. • Sosegarse, aplacarse. *Oso arrua zan gaztetan baina majo umilddu da edadiakin./ Aura be umildduta egongo da ill ezpada. Mertz. Ik. **mantsótu, otzándu.***

**ÚMILL, umílla** (b). izena. Apala. • Humilde, sencillo. *Andra umill askua zan Jerolima.*

**UMÓRE, umoría** (a). izena. Humor. *Eztauka ezetarako umoreik. umoréko egon (b). esapidea. Umore oneko egon, harrapatu. *Gaur aitta umoreko zeuan da milla pezeta emun dosta./ Umoreko arrapatzen bozu preguntaixozu gure jornalakin ze pasatzen dan. Sin. umoretsu egon, arrapau...**

**UMORÉTSU, umoretsúa** (c). adjektiboa. Umore onekoa. *Oso umoretsua zuan zuen aittajuna. umoretsu egon. Ik. umoréko egon.*

**UNA, -E1. úna, -e, únía** (b). izena. Zona, espacio, trecho. *Basarriko bidia una baten ziero ondatuta dago. Hitz konposatuetan: gorriuna, beltzuna, sartuuna... 2. úna, -e, únía (c). izena. Rato, momento. *Una baten egon nitzuan elizatik urtetzeko be, sermoia etxauan aguantatzeik eta.**

**UNAMUNÍXO, unamunixúa** (d). izena. UNAMORIXO. Armonia ona, familiako edo lagunarteko giro ona. • Buena armonía. *Unamunixua? ja, ja, ja (barreak); unidadia ero, unión, ero. Familixa ortan dago unixua esateko, unamunixua. Eta beste noizbait? Auzo baten-ero unamunixo ona dagola. Klem./ Bazkalonduan, guztiak alai ebizen, unamorixuan, ango kantau biarrak ez ei eukan akabaurik. (SM Ezten). UNAMUNIXO TXARRA ez omen da esaten.*

**UNE** Ik. **úna, -e.**

**UNGRIÁNO, ungríanuak** (d). izena. Gerra ingururarte herriz herri ibili ohi zen giza-taldea, oihalak saldu eta titiritero ikuskizunak emanez. • Hungrianos; grupo nómada que llegaba a nuestros pueblos hasta la última guerra. *Leno ijitto moduko zerak etortze zittuan, kaldereruak ero zerak; etxakixat arek teatruak ero ze eitte zittuen be. Bai, sekulako jítana elegantiak etortze zittuan, eundoko karro dotoriekin dda, lenao. Urte asko dok, bai&ntilde;a etortze zittuan ungrianuak. Klem./ Ungrianuak pa, Ungriako jentia zan, arek gutxiao ibiltten zien, bai&ntilde;a izen zien emen e epokak etorten ziena ungrianuak pe. Mertz./ Ona lenao etortzen zien ungrianuak ero, esaten gontsen. Andrakumiak eta ola ijitto modura ero karruekin, da telak saldu. &ldquo;Ze dia orrek?&rdquo; eta &ldquo;ungrianuak ero, kaldereruak ero&rdquo;. Don. Ikusten denez &quot;ungriano&quot; eta &quot;kalderero&quot; gauza berdintzat dute. Sin. kalderero.*

**ÚNIKO** (c). adberbioa. Unicamente, solamente. *Guk eztou xagu-tranpaik saltzen; orrek uniko Erratzunian billaukoittuzu./ Ordu ontan eztaukazu Donostiarako konbinaziñoik; taxisian Zumarrara joaten baza uniko.*

**UNJENTU** lk. **újentu**.

**UNO KON OTRO** (c). esapidea. Batenaz besteren itzulpen literala. Biak erabiltzen dira, baina "uno kon otro" oso sartua dago. • A fin de cuentas, uno con otro. *Erarixakin dezente irabazi giñuan baiña janakin galdu; uno kon otro parra urten giñuan./ Etxakixat, baiña uno kon otro amar bat mila duro galduko giñuan.* Sin. **batenaz beste**. **uno kon otro buztan y potro** (c). esapidea. ( arrunkeria.) Azkenean parra, antzera, edo halako zerbait esan nahi duen esaera elebidun umorezkoa.

**UNTAU1. untáu** (a). aditza. Huntar. *Neri lapiko ondarra ogixakin untatzia gustatzen jat.* Ogia &laquo;untauta&raquo; jatea oso ohikoa zen lehenago. **2. untáu** (c). aditza. Sobornar. *Ta ez al legoke modurik, besterik ezian jueza zerbaitt untau ta lurrak danak ezpadira be erdixak edo nereganzeko? (SM Ezten).* Sin. **busti**.

**UNTÚRA, unturía** (d). izena. Jugo, sustancia. *Garua olakoxe sustarra ero motzauakin ebai biar, an euala unturia ta; lurrakin, onduan. Hil.* lk. **onura**.

**UNTZ, úntza** (b). izena. . hedera helix. Yedra. Paretan nahiz arbolan gora aidoso igotzen da, baina besterik ezean lurrian zehar ere zabaltzen da.

**UNTZA, untzie** izena. (Aramaio) lltzea. lk. **íltza**.

**UNTZILLA-KEIXA, untzilla-keixia** izena. "Gerezi mota bat. *Ezta aundixa be, anpolaixa baiño txikixaua, metautakua.*" (Lar Antz).

**UNTZÓRRI, untzorría** (c). izena. Untzaren orria, kailuendako erabilia. • Hoja de yedra. *Untzorrixa kailluendako dok ona, binagretan beratzi orduan eukitta. Ipiñi, eta kendutakuan beste bat ipiñi, eta zuri-zuri indda ziero oneratze jok kaillua. Klem.*

**UPATEI** lk. **íputei**.

**ÚPEL, upéla** (d). izena. Hemen <i>barrika</i> edo <i>bukoe</i> berbak erabiltzen dira upel-en lekuan, baina Don.k dio Egiño-ko sagardotegian <i>upel</i> deitzen zitzaizola barrika handiari, estutu berriak ziren zuku guztiak hartzen zituenari. *Sardaotei bastante aundixa Egiñon, oinddio be an jak; eta zeuan lelengo artzeko, dana batera artzeko, zeuan upela, aundi bat, milla litrokua, eta gero andik bukoetara pasatze zaban. Da bukoiak pa bosteun ero seireun litrokuak ero ola zien. Don.* lk. **pípa**.

**UPIÑ** lk. **ipuíñ**.

**1. UR, urra** (d). adjektiboa. Hurbilekoa. • Cercano, -a. *Ermua eta Eibar erri oso urrak die./ Orrek senide-ur gutxi dauka./ Barrenetxe ta Narbaiza gure auzo-urrak die.* Hitza soilik (lehen adibidea) gutxi erabilia, nahiz eta antzina normala izan. Konposatu moduan: senide-ur, auzo-ur, basarri-ur, eta beste banakaren bat, biziago.**úrren, úrrena** (c). adjektiboa. Hurbilena. • El más cercano. *Aralarrarera joaten ga eskiatzera urrena dalako./ Uberan daukau tabernaik urrena.* Konposizioan batik bat: *auzo(ik) urren, etxe(ik) urren, senide(ik) urren...* Ari danak il jakoz da Donostiako lengusuak izangoittu senide urrenak./ Auzoik urrenai tokatze jako abadiai abixatzia. Ant. **úrriñen**.

**1. UR1. ur, ura** (a). izena. Agua.

**Eundaka urtietan, ura lengo bidietan** esaera. (Antzuola) "Es peligroso estrechar el cauce de los rios." (Izag *<i>Antz</i>*) **Ura eta sua belaunez azpittik** esaera. (Lar Antz). **beteko urak** (c). izena. Norbera estaltzeko moduko urak. *Ibaia beian etorrenian be ixa beteko urak izaten ziran ta iñor ez zan atrebitzen islara pasatzen. (SM Zirik) éskutarako ur, éskutarako úra* (d). Edateko balio ez duena, baina beste zereginetarako bai. *Andik eruten giñuan eskutaakua, baiña eratekua itturritik. Jjp. ur aundi, ur aundixak* izena. Sakonera handiko urak. Hankarekin lurra ukitu ezin den lekua. **ur aundiko arraiña izan** (c). esapidea. Inportantea, esperientzia handikoa izan. *Ori eztabe kartzelan sartuko, ori ur aundiko arraiña da. ur aundixetan sartu* (c). esapidea. Erantzukizun handiko gauzetan sartu. *Fabrikako gerente ein dabe eta ur aundixetan sartuta dabill. ur ázal, ur ázalak* (d). izena. Aguas poco profundas.

**ur gaiñeko bitsetan** lk. **bits. ur gárbi, ur garbíxa** (a). izena. Agua limpia, clara, transparente.

**ur gázi, ur gazíxa** (b). izena. Agua salada.

**ur géldi, ur geldíxa** (c). izena. Agua estancada. *Ur geldixan ugaritzen die ugarixuak./ Ur geldixa usteldu eitten da. ur géza, ur gezía* (d). *Ura gazixa ta gezia izan leikek. Klem. ur maillátu, úr maillatúa* izena. Salto asko egin ondoren mailatuta dagoena. **ur sákon, ur sákonak** (c). Aguas profundas. *Kangrejuak eztie ur sakonetan ibiltzen, ur azalak gustatzen jakue. ur txiki, ur txikixak*

izena. Hankekin hondoa ukitzeko moduko urak.

**ur zíkíñ, ur zikíña** (a). izena. Agua sucia, turbia. lk. **erderak artu. ur-bizi, ur-bizixak** izena. Ura

azkar eta bizi doan erreka tarte. **urak ekarri1. urak ekarri** (c). esapidea. Baserrietan ura falta denean, hartzen den lekuraino -errekaxo, deposito, iturri- joan, zer pasatzen den ikustera eta aberia konpontzera. *Gizonak urak ekartzera joanda die Urkitzara. 2. urak ekarri* (c). aditza.

Ur-korrenta etxean sartu. *Gerra-aurretxuan ekarri zittuen urak gurera. urak euki* esapidea. (Eibar) Norbaiten traza edo antzeko nortasuna izan. *Orrek bere aittan urak dakaz. úrak ipiñi* (c). aditza. Ur korrontea jarri etxean.

*Oin ddala gutxi jarrittue urak. urústel, urustéla* (c). izena. Ur geldia, jada berdetuta dagoena. **2.**

**-ura** (b). izena. Konposatueta, zumoa, zukua: naranja-ur, limoi-ur, etab. • Zumo, en palabras compuestas. *Oso ona da naranja-ura./ Melokotoi-ura artu giñuan. 3. ur, ura* (d). izena. Isurialdea. Etxeak teilatua zenbat aldetara duen adierazteko erabiltzen da. *Au iru aldetara ura daben etxia da. Benito.* Bi ureko etxea, iru urekoa, lau urekoa... esaten da.

**2. UR, úrra** (a). izena. Avellana. *Urrak etara dosku ogixa ta ardauakin.* ABILLANA beste zer bait da, kakauetea, alegia. Erdaraz ere "hemos comido urras" entzun ohi da. Zuhaitzari berari ur soilik ere bai: *Urrera igo dau mutikuak. Baina ur-arbola, normalean.* lk. **abíllana.**

**3. UR1. ur, urra** (d). adjektiboa. Hurbilekoa. • Cercano, -a. *Ermua eta Eibar erri oso urrak die./ Orrek senide-ur gutxi dauka./ Barrenetxe ta Narbaiza gure auzo-urrak die.* Hitza soilik (lehen adibidea) gutxi erabilia, nahiz eta antzina normala izan. Konposatu moduan: senide-ur, auzo-ur, basarri-ur, eta beste banakaren bat, biziago. **úrren, úrrena** (c). adjektiboa. Hurbilena. • El más cercano. *Aralarrarera joaten ga eskiatzera urrena dalako./ Uberan daukau tabernaik urrena.* Konposizioan batik bat: *auzo(ik) urren, etxe(ik) urren, senide(ik) urren... Ari danak il jakoz da Donostiako lengusuak izangoittu senide urrenak./ Auzoik urrenai tokatze jako abadiak abixatzia.* Ant.

**úrriñen. 2. ur** (a). adberbioa. Hurbil. • Cerca. *Ni zure ur-urrian bizi naiz./ Urretik bota zotsan tirua./ Urrera ondo ikusten dot.* Lekuzkoetan bakarrik: *urrían, urr&eacute;ko, urr&eacute;tik, urrera...* Ur edo urre ez dira hutsik esaten, errepikapenetan ez bada: UR-URRIAN edo URRE-URRIAN. **urrik (emon) be(z)** esapidea. Ni mucho menos, ni por asomo. *Mindegiak errez irabaziko jotsak Arriai &mdash; Bai zera, ezta urrik emon be./ PPK PSOEi etxotsak urrik emon be eingo./ Estu artuko*



zebalakuan, baiña ezta urrik pe.

**URAKAPIÑ, urakapiñak** (c). izena. (Soraluze) Ufalak ibai bazterretan edo erdiko uhartetxoetan uzten dituen hondakinak. Suegurra, batik bat. *Erri guztia konturatuta ei zeuan ibai erdi inguruan euan ugarte edo islan bazala egurra, bertan azitakuaz gaiñera ufalak ekarritako urakapiñetan.* (SM Zirik)

**URAK ARTU** esapidea. Bainuetxera joan. *Zestonara joan die urak artzera.* Klem.

**URAMILL, urámilla(k)** izena. (Oñati) "Riada, ola de mar. *Or datoz uramillak!: las aguas grandes después de la lluvia.*" (Izag Oñ) AMILLAK ERUAN: itsasoak eraman. Ik. **amill**.

**URANDRA, urandria** (Eibar) triturus sp.. Tritón.

**UR ÁRBOLA, ur árbolia** (a). izena. . corylus avellana. Avellano. *Ur arbolia esaten jau jateko urra batzen danian, aundixai, eta urritza esaten jau eskeretan egoten dana, silbestriai; urritza, urritz sastrakia.* Don. Urrak ematen dituen arbola ezaguna. Berez sortutako ugari topa daiteke errekondotan, bide zaharretan etab. Berez sortutakoari URRITZa esaten zaio. Ik. **urritz**.

**URARDÁO, urardáua** (b). izena. Ardoa eta ura nahasturik. • Mezcla de agua y vino. *Mutikotan urardaua emuten zoskuen bazkalorduan.*

**URÁTS, urátza** (d). izena. URETZ (ARAM.). Halsa botatzen duen ura. • Agua sulfurosa. *Balnearixotan egoten da uratsa, eta badie iturrixak emen inguruan be./ Uratsa, eztakik arrautza-ustel usaiña botatzen dabena? Klem.* Uratsaz beti "arrautza-ustel usaiña" duela esan ohi da. Ik. **arráutzaústel**.

**URÁUNDI1. uraundí, uraundíxa** (b). izena. Uholdea, ufala. • Riada, inundación. *Gure sobarrengo zubixa uraundixak eruan zeban.* Sin. **úfal**. **2. uráundi, uráundixak** (c). izena. Ur sakonak. Lekuzkoetan, batik bat. • Aguas profundas. *Ez juan uraundittara, eztakizu igarixan da./ Uraundittan ibiltzia gustatze jako.* Pluralean. Sin. **ur sákon**.

**URAZAL, urazala** (d). aditza. Agua poco profunda. NON kasuan ia beti: &nbsp;<strong> </strong> URAZALIAN. *A flor de agua, a poca profundidad. Urazalian zebitzen anborrai&ntilde;ak eskupetiakin arrapatzen zittuan.* Ik. **ur ázal**.

**URBATU, urbatua** (d). izena. (Oñati) "El pozo de agua." (Izag <i>Oñ</i>).

**UR BÉDAR1. ur bedar, ur bedárra** (d). izena. . Ihia. Junco. Ik. **íxa**. **2. ur bedar, ur bedarra** (d). izena. . sanicula europaea. Sanícula. (SB Eibetno).

**URBÉDEINKATU, urbédeinkatua** (b). izena. Agua bendita. *Urbedeinkatua etxetara partitzen zan Paskua egunian.*

**URBÉDEINKATU-ONTZI, urbédeinkatu-ontzíxa** (b). izena. Agua benditera. *Urbedeinkatu-ontzira jausi jako txapela.*

**URBÉRO, urberúa** (a). izena. Agua caliente. *Urbero poltsiak in joaten da obero.*

**ÚRDAI**, **úrdaixa** (a). izena. Tocino. Ik. **irúgiarre**, **urdáiazpiko**.

**URDÁIAZPIKO**, **urdáiazpikua** (a). izena. Jamón. Sin. pernill (Lein.). Sin. **pernill**.

**URDÁIGAILLU**, **urdáigaillua** (d). izena. Corteza de cerdo. *Garixen kontrako erreimeixue: urdeigailuaz kurtzie eiñ garixe dauen lekuen eta gero urdeigailue ondo gorde (hortxe jak sekretue). Normalien hillabetien dana garbi. (AA ArrasEus, 195. o.).* Ik. **gáillu**.

**URDAIGIXARRA**, **urdaigixarria** izena. "Tocino veteado. • Gixarria daukan urdaixa, zuri-zurixa izan biharrian." (SB <i>Eibetno.</i>

**URDÁILL**, **urdáilla** (d). izena. Ganaduen sabela. • Tripa, estómago de ganado. Gaur egun **tripa entzuten da gehiago**. Ik. **estómagu**, **urdail-zúlo**.

**URDAIL-ZÚLO**, **urdail-zulua(k)** izena. Urdaila eta hezurren artean, alde banatan, sortzen den sakonunea, urdaila hutsik dagoenean. • El hueco que se forman en cada lado de la parte superior del estómago del animal cuando éste está vacío. *Urdail-zuluak, beixak tripia utsik daukanian eukitzeittuan zuluak. Klem.*

**URDAIONTZO**, **urdaiontzua** (d). izena. (Antzuola) URDAIUNTZO, ONTZO. "Cada una de las patas del cerdo con su carne: <i>lau urdaiontzo.</i>" (Izag Antz).

**URDE** Ik. **txárri urdía!**

**URDÍNDU1. urdinddu** (d). aditza. "Ilea zuritu; ez dago zuri-zuria egon beharrik hori esateko, nahikoa da ile zuri batzuk izatea." (Lar Antz). **Etzara etorriko Jesukriston bizarra urdinddu arte** esaera. (Oñati) "<i>Etzara etorriko Jesukriston bizarra urdinddu arte: </i>no vendrá usted nunca." (Izag Oñ). **2. urdinddu** (d). da aditza. Volverse azul. *Sutaittik etara eta tenplatzeko uretan sartzerakuan urdinddu eitten da. Eus.* Ik. **urdíñ**.

**URDIN-ILLUNDU** aditza. (Eibar) Pavonar.

**URDIN-SÁGAR**, **urdin-sagárra** (c). izena. Marra gorrixkako sagar mota ale-handia. *Gure sobarrenian dago urdín-sagarra.*

**ÚRDIÑ1. urdíñ, urdíña** (d). adjektiboa. Azul. Usado por nuestros antepasados. *Lenoko zarrak asko erabiltze juen urdíña, e; zeru urdíña dago ta. Ero koloriaaittik. Urdíña, urdíña erabiltze juen len. Klem./ Guk azula. Urdíña... geuk erropiai tta ez. Sagar urdíña, urdinsagarra. Urdíña ola esan ez. Urdinperretxikua ta... lizundutako gauza bati... aretxi be puxkat esaten jako, lizun-berdia eiñ ezker, ño, au be urdintzen asitta jak. Don.* Bergarako gure lekukoen arabera, ilea ez da "urdinddu" egiten, "zuritu" baizik. Grisa edo definizio zaileko kolore eremu hori izendatzeko ez dute Bergara aldeko adinekoek ia erabiltzen, guk dakigula behintzat. Leintz edo Oñati aldekoek beharbada gehiago. Dena dela, urdin-perretxikua edo urdin-sagarra ez dira inondik inora azulak. Sin. azul (arrunta, eskolaren eraginez urdin pizten ari bada ere). Sin. **ázul. urdínska, urdínskia** adjektiboa. "Un poco gris." (Izag <i>Oñ

</i>**2. urdíñ, urdíña** (c). izena. . russula virescens. Gibelurdina, perretxiku ezaguna. Izen latinoia berdina bada ere (?), hiru perretxiku desberdin dira guretzat **gibelurdíña** (tono more, gris edo berdexkakoa), **korosoa** (berde argia, txapel ederrekoa) eta **urdíña**. Azkenengo hau, gezurra badirudi ere, berde-berdea da. Ik. **gibélurdiñ, koróso**. **3. urdíñ, urdíña** (d). izena. Tela de mahón,

"azul de Bergara". *Emen Bergaran eitten zan telia zan urdiña, lanerako urdiña, ari Bergaran esate jakon urdiña, baiña Durango aldi ankiña esaten dotse, ankiña. Eztot beste iñun entzun. Josu. Sin. ankiñ, máun.*

**UREBAGI, urebagixa** izena. (Eibar) "Tenplian pieziari iñoiz gertatzen jakon zartaria edo ebagixa ur hotzegixan hozten danian." (SB Eibetno).

**UR-ÉRRETEEN, ur-érretena** (c). izena. Zanja por la que circula el agua. *Tratoria ur-erretenian sartu ta kristonak ein giñuzen etarutzen. Ik. erréten.*

**URÉSNE, uresnía** (c). izena. Ura nahastuta duen esnea, lehen katarroaren edo gripearean kontra erabilia. • Leche aguada. *Uresnia len katarruandako ta asko erabiltze zuan; urakin egositta esnia. Orduan desnatadaik etxeuan da orregaittik izengo zuan. Uresnia; gripiakin da zeuanian uresnia. Klem.*

**URÉTA, uretía** (c). izena. Ur garraioa. *Egun guztian baten batek uretía ta, bakizu ura zela gastatzen dan; gaur baiño obeto kaso eitten jakon. Hil.*

**URETAKO SUBA, uretako subia** (c). izena. UR-SUBA. natix maura. Culebra de agua.

**URETZ** Ik. uráts.

**ÚRGULLU, úrgullua** (d). izena. Harrotasuna. Orgullo, altanería. *Ziero arruinau zien, baiña artian be urgulluagatik taxisian pasiatzen zien./ Kubako gerran kapitan izanan urgullu demasa zeukan Krisostomo zanak. Klem. **Urgullua** eta **arrokerixia** ez dira gauza bera. Bigarrenak fanfarrería, txuleria esan nahi du, eta **urgullua** duinagoa da, balore positibotzat jotzen da. Oso edadetuek bakarrik erabilia.*

**URIAUZO** toponimoa. Agiri zaharretan azaltzen denez, Bergarako hiribilduaren ondon, Santanako Jauregiaren inguruan zegoen auzoa.

**URIXOLA, urixolie** izena. (Aramaio) Uriola, uholdea. Ik. **úfal**.

**URJÁUZI, urjauzíxa** (d). izena. Cascada. *Urjauzi azpixan baiñau giñan.* Gutxi erabilia. Ik. **úrsalto**.

**URJEL** (d). adberbioa. Mehatz. • Ralo, poco poblado. "*Urjeltxo dao arbixa: miatz.*" (Izag Oñ). Sin. **míetz**.

**URJOL, urjóla** "El agua que corre al caer un aguacero; <i>urjól bat. •" </i>(Izag <i>Antz</i>).

**URKÁBERA, urkáberia** (d). izena. (Oñati) "Sentencia de horca. <i>Urkáberia emon xai: </i>le han dado la sentencia de horca." (Izag Oñ).

**URKAMÉNDI, urkamendíxa** (d). izena. URKAMEN (OÑ.). Urkaketa. • Ahorcamiento. Hau dio Hilarik Angiolilloren "urkamendixa" kontatzerakoan: *Gaur e, baakizu gaur ero biar ze funziño ero ze ikusmira daon Bergaan? "Urkámena merezi: merecer la horca."* (Izag Oñ)

**URKÁTU** (b). da-du aditza. Ahorcar(se). *Teillatuko abetik urkatu zeban bere burua (edo urkatu zan)./ Turkian oinddio jente asko urkatzen dabe. Ik. **bere burúa bóta**.*

**ÚRKI, urkíxa** (b). izena. . betula pubescens. Zurzuria. • Abedul. Gaztetan gerriak kolore gorrixka badu ere laster hartzen du bereizgarri nabarmena duen kolore zuria. 10 edo 15 m hartzen ditu eta asko sartu ohi da ibilbide eta jardinetan apaingarri bezala. Mugarri zuhaitza da, agian bere kolore zuriagatik, eta betidanik sartu izan da mugetan. Basoan ere ugari aurki daiteke batean bestean, baina ia ez da geratzen urkidirik. Urkia zotzak egiteko erabiltzen da, eta papera egiteko ere ona omen da hari asko duelako. Piano teklak egiteko ere erabiltzen zen. Ik. **úrkiri**.

**ÚRKILLA1. úrkilla, úrkillia** (c). izena. Zutabe edo enbor batetik bi irteten direneko gauzakia eta lekua. • Horquilla. *Arboliak urkillia eitten daben lekuan dauka zozuak apixia./ Urkillia ta gomiakin eitten da tiragomia./ Bizikletian urkillia apurtu ta muturrez aurrera jausi zuan./ Guriak eukan belarrixan urkillia (ardien marka), trak, urkilla bat kentzen jakuen. Luis. Ik. **ankáurkilla. 2. úrkilla, úrkillia** (c). izena. Puntan urkila duen makila, belarrari buelta emateko tresna. • Herramienta que sirve para remover la hierba, por ejemplo, y que consiste en un palo que se divide en dos (o en tres) en la punta. *Bedarrai buelta-ta emuteko urkillak; egurrezkuak; bi ortzetakuak, emen ibiltze zienak beintzet. Klem. 3. urkilla, urkillia* (c). izena. Bi puntako iltze arkuduna. *Urkillak. Orrek alanbre eztakan alanbria josteko, ta esolak-eta kanpuan zerradurak-eta eitteko. Sebas.**

**ÚRKIRI, úrkirixa** (d). izena. URKIDOI (ARAM.). Urkidia. • Bosque de abedules. *Txikason iru miliziano il zittuan urkirixan. Klem. Ik. úrki.*

